



## **IBAETA** **BILERAREN LABURPENA**

<b>Eguna</b>	2015/11/5
<b>Ordutegia</b>	19:30 – 21:00
<b>Tokia</b>	Ibaetako Elkartegunea



### **DEITUTAKOAK**

**ILAE Auzo Elkartea**  
**Ibadan**

**Hirigintza, Bide Publikoa, Mugikortasuna**  
**eta Herri Partaidetza**  
**Udal ordezkari politiko eta teknikoak**

### **BERTARATUAK**

**ILAE:** 2  
**Ibadan:** 1  
**Besteak/otras:** 4

**Udal Partaideak / Asistencias Municipales:**

**Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia /**  
**Concejala**  
**Pilar Arana, Zinegotzia / Concejala**  
**Miguel Díez Bustos, Zinegotzia / Concejal**  
**Juan Ortiz de Zarate, Zuzendaria / Director**  
**Jurdana Arruabarrena, Teknikaria/ Técnica**  
**Santxo Leizaola, Teknikaria / Técnico**

## HELBURUA:

***Ibaeta hobetzeko diren premiak eta proposamenak jasotzea, segimendua egitea eta auzoarekin lotutako proiektuen gaineko informazioa ematea.***

### Landutako gaiak

1. Gune Publikoa Erabiltzeko Bulegoa: Zunda, Kantu Jira eta Konpartsa
2. Lugaritz eta lokal baten beharra auzoko jarduerak egiteko
3. Elizaren azpiak erabiltzea kultur jarduerak egiteko
4. Pokopandegi bidea
5. Sakangune bat jartzea Igara bideko oinezkoen pasabide batean
6. TAO edo bizilagunentzako aparkalekuak jartzea berriz ere Igara bidean
7. Auto-ilarak izatea poligonotik ateratzeko orduetan
8. Galderak eta eskaerak

### Gaien azterketa

#### 1. GUNE PUBLIKOA ERABILTZEKO BULEGOA: ZUNDA, KANTU JIRA ETA KONPARTSA

*Gune Publikoa Erabiltzeko Bulegoarekin harremanetan jartzeko datuak eman dizkiegu.*

#### 2. LUGARITZ ETA LOKAL BATEN BEHARRA AUZOKO JARDUERAK EGITEKO

Lokal bat eskatzen dute jarduera batzuk egiteko auzoan, Lugaritzek ez dituela diren beharrak betetzen iruditzen zaie eta. Umeak-eta beraiek bakarrik joateko modua izatea nahi dute, eta hori ezin da Lugaritz erreferentzia gune izanez gero. Iruditzen zaie badutela Gazteria eta Partaidetza departamentuen babesa, baina, zera behar dute:

- Jarduerak egiteko tokia.
- Auzoaren dinamizazioa kudeatuko duen pertsona bat.

Beraz, bi gauza eskatzen dituzte:

1. Tokia bera.
2. Programa eta zerbitzu batzuk dinamizatzea Udalaren kargu izango diren langileen bidez.

*Ez dago udal lokalik hutsik, ez eta egiteko aurreikuspenik ere.*

Auzotarrek esaten dute auzoa hazi egin dela, baina ez zaiola behar duen zerbitzurik jarri. Eta Ibaetako Auzo Elkarteak ez da auzoan den eskariari erantzutera ailegatzen.

*Miguel Angel Diez Bustosek esan du begiratu daitekeela lokal bat (azpi bat, Eusko Jaurlaritzak Amerika plaza Zarautz hiribidea 133an), trukeren bat egiteko edo. Hutsik den lokal bat errentan hartzea ere aipatu dute (Tool Box-ena, Elkartegunearen ondokoa).*

ILAEko Irenek Tool Box-en eta Elkartegunearen ondoan errentan jarrita dagoen beste lokal baten lotura eman digu:

<http://www.vibbo.com/guiupuzcoa/local-en-calle-illarra-berri/a76217162/#>

### **3. ELIZAREN AZPIAK ERABILTZEA KULTUR JARDUERAK EGITEKO**

ILAEk berak ere ibili zituen garai batean, baina arazoak izan zituzten eta behin baino gehiagotan lokala itxita eta sarraila aldatuta aurkitu zuten. Ibadanek ere erabiltzen ditu, baina Parrokiako Juntarekin arazoak dituztela esaten dute, eta hark kudeatzen dituela horko lokalak.

Antton Irizarrek Juntarekin berarekin hitz egitea aipatu du, eta lankidetzaz hitzarmenen bat egitea-edo komeni den hitz egin dugu.

### **4. POKOPANDEGI BIDEA**

Kalea konpondu eta hobetzeko eskaera 1998az geroztik dago eginda. Bi atariren artean (42 eta 58) hesi bat jarri eta itxita dago bidea.

*Hiri Mantentzekoek esan dute 2005az geroztik badela proiektu bat, baina auzotarrak esan duena baino garestiagoa dela obra, harri-lubeta bat egin beharra dagoela eta. 100.000€ - 120.000€ inguruan ibiliko litzateke aurrekontua.*

26. atariaren parean sasiak hartuta dauka bidea, metro eta erdi behintzat.

*Behemendirekin batera sasi horiek garbitzeko hitza eman dute Hiri Mantentzekoek.*

26. atarikoek eta 11.ekoek ezin dute etxera pasa, kotxeak espaloian utzita izaten direlako. Marra hori bat margotzeko eskatu dute, toki hartan ez dagoela aparkatzerik adierazteko. Era berean, Mugikortasunekoek kartel handi bat jarri dute, karabanak eta ibilgailu handiak Pokopandegi aldera ez sartzeko. Baina, ez dute uste hori nahikoa izango denik.

### **5. SAKANGUNE BAT JARTZEA IGARA BIDEKO OINEZKOEN PASABIDE BATEAN**

Aitor Zabaleta plaza eta eskailerak diren pare hartan.

Oinezkoen 2. pasabidean sakangune bat jartzea proposatu dute, Arrikitaun pasatu eta gerokoan.

### **6. TAO EDO BIZILAGUNENTZAKO APARKALEKUAK JARTZEA BERRIZ ERE IGARA BIDEAN**

Aitor Zabaleta plazaren inguruan. Igara bideko aurreneko zatia aipatu dute, 16. eta 55. atarien artekoa.

Hiritzat tratatzea eskatzen dute, poligonotzat ez baina. Eskatzen dutena da TAO edo bizilagunek aparkatzeko tokia izatea 43-55 atarien inguruan, hasierakoek badaukatelako eta, gainera, garajea ere badutelako.

### **7. AUTO-ILARAK IZATEA POLIGONOTIK ATERATZEKO ORDUETAN**

Arratsaldeetan izaten dira auto-ilarak, 18:00ak aldera.

Bizilagun batek taxien geralekua Tolosa hiribidearen beste aldera pasatu eta errei hura Bilbo aldera zuzenean ateratzeko berreskuratzea proposatu du. Autobusen 33. ibilbidearen geralekua ere mugitu egin behar litzateke hartarako. ILAEk ez du oso argi ikusten hori, zeren eta ondorioz plaza babes gutxiagorekin geratuko litzateke (eta umeak-etab ibiltzen dira han) eta zerbitzuak galdu edo urrunago izango lituzke auzoak.

## 8. GALDERAK ETA ESKAERAK

1. **Aitor Zabaleta plaza:** Foko bat jarri eta arratsaldean ere argia izatea eskatu dute, neguan garaiz iluntzen du eta. *Miguel Angel Diez Bustosek esan du emango diela eskaera horren berri Kiroletakoei.*
2. **Errotaburu pasealekua:** Abiadura handian jaisten dira kotxeak.
3. **Errotaburuko TAO:** Errotaburuk TAO gorria du egun guztian. Arratsaldean berdea izatea proposatu dute.
4. **Igara bidean kimaketa batzuk egitea:** Hain zuzen ere, 15. atariaren parean, argitasun gehiago izateko.



Eskerrik  
asko!!